

## HAUTAKETA-PROZESUAN EUSKARARI BURUZKO EPAIARI BURUZKO OHARRA (APELAZIOA)

2024aren amaieran, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak epai bat eman du, eta haren bidez, 2024aren hasierako beste instantzia baten apelazioa ebazten da (horri buruzko informazio-ohar bat argitaratu zuen BFAk).

Epaia administrarien 77 plazaren hautaketa-prozesuaren eskaintzari eta deialdiari buruzkoa da, eta derrigorrezko hizkuntza-eskakizunen eskaerari lotuta aurkeztu ziren errekurtsoak.

Epai horrek ezetsi egin du Bizkaiko Foru Aldundiak aurkeztutako apelazio-errekurtsoa.

Epaia ez da irmoa eta haren aurka kasazio-errekurtsoa aurkez daiteke.

Bizkaiko Foru Aldundiak berretsi nahi du ebazpen judicialak errespetatzen dituela, baina adierazi nahi du ez dagoela ados epai horiekin, instantzia-epaiari buruzko oharrean adierazi genituen arrazoi berberengatik. Gure iritziz, epai horiek ez dute zuzen interpretatzen funtzio publikoaren eta hizkuntza politikaren arloko araudi aplikagarria, eta gainera, ez dituzte aintzat hartzen Aldundiak funtzio publikoari dagokionez eta hizkuntzari dagokionez azaldutako argudioak; beraz, Aldundiak egiten duen balorazioa da epaiak ez diotela funtsari heldu eta errekurtsoa jartzeko arrazoiak daudela.

Horregatik, Bizkaiko Foru Aldundiak errekurtsoa jarriko du epai horien kontra, eta beraz, horrek esan nahi du epaiak ez direla irmoak eta ez direla irmoak izango errekurtsoak ebatzi arte.

Errekurtsoak jarrita, bermatu nahi da Bizkaiko Foru Aldundiak ematen dituen zerbitzuak bi hizkuntza ofizialeko edozeinetan emango dituztela funtzionario publikoek, hau da, funtzio publikoaren araudiarekin, lanpostuen zerrendekin eta hizkuntzaren arloko araudiarekin bat datorren hautaketa-prozesu batean

## NOTA EN RELACION CON LA SENTENCIA SOBRE EL EUSKERA EN PROCESO SELECTIVO (APELACION)

A finales de 2024 se ha dictado una Sentencia por la Sala de lo Contencioso Administrativo del TSJPV que resuelve la apelación de otra de instancia de principios de 2024 sobre la que la DFB publicó una nota informativa.

El objeto es la oferta y convocatoria del proceso selectivo de 77 plazas de personal administrativo y el motivo de los recursos deriva de la exigencia de perfiles lingüísticos de carácter preceptivo.

Esta Sentencia ha desestimado el recurso de apelación presentado por la Diputación Foral de Bizkaia.

Esta Sentencia no es firme y contra ella cabe interponer recurso de casación.

La Diputación Foral de Bizkaia reitera el respeto a las resoluciones judiciales, pero también su discrepancia con dichos fallos por los mismos motivos que pusimos de manifiesto en la nota referida a la Sentencia de instancia. (A nuestro entender no interpretan correctamente la normativa aplicable existente al respecto ni en materia de función pública ni en materia lingüística y no han recogido las argumentaciones de la Diputación tanto en materia de función pública como en materia lingüística por lo que la valoración que la Diputación hace de ellas es que no ha entrado en el fondo y hay objeto de recurso.

Por ello, la Diputación Foral de Bizkaia recurrirá las mismas, lo que significa que no son firmes ni lo serán hasta que se resuelvan los recursos que se planteen.

Con la interposición de los recursos se pretende garantizar la plena prestación de los servicios de la Diputación Foral de Bizkaia indistintamente en cualquiera de las dos lenguas oficiales por personal funcionario público que ha acreditado mayor mérito y capacidad en un proceso selectivo que está acorde



meretzimendu eta gaitasun gehiago egiaztatu dituzten funtzionario publikoek.

Berriz adierazi nahi dugu Bizkaiko Foru Aldundiak egiten dituen hautaketa-prozesuek ez dutela zalantzan jartzen euskaraz ez dakiten pertsonen parte hartzeko aukera izatea. Inola ere ez. Izan ere, aukera ematen zaie hizkuntza-eskakizuna hautaketa-prozesuan bertan lortzeko (berariazko proba bat dago horretarako).

Bizkaiko Foru Aldundiaren helburua da deialdiko plazak horretarako gaitasun handiena duten hautagaiei esleitzea.

Argi dago, bi hizkuntza ofizial dituen lurralde batean, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko gai direnek hizkuntza bakarra erabiltzeko gai direnek baino meretzimendu eta gaitasun gehiago dituztela.

Horregatik guztiagatik, Bizkaiko Foru Aldundiko hautaketa-prozesuetan parte hartzen ari direnek normaltasunez jarrai dezakete prozesu horietan parte hartzen; izan ere, prozesu horiek aldatzen dituen edozein kontu jakinarazi behar izanez gero, beharrezkoa denean jakinaraziko dugu.

Oraingoz, epaiak ez dira irmoak, eta errekurtsioa jarriko da haien aurka.

2025eko urtarrilaren 10a

**ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA FUNTZIO  
PUBLIKOAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA**

con la normativa de función pública, las relaciones de puestos de trabajo, y la normativa lingüística.

Insistimos en que los procesos selectivos de la Diputación de Bizkaia no ponen en cuestión la participación de aquellas personas que no sepan euskera. Nada más lejos de la realidad ya que se posibilita que se pueda lograr el perfil lingüístico correspondiente dentro del propio proceso selectivo (existe una prueba específica para ello).

La finalidad de la Diputación Foral de Bizkaia es adjudicar las plazas de la convocatoria a las personas candidatas más capacitadas para ello.

Es obvio que quien conozca dos lenguas oficiales en un Territorio con dos lenguas oficiales demuestra mayor mérito y capacidad que quien exclusivamente conozca una.

Por todo ello, quienes estén participando en los procesos selectivos de la Diputación Foral de Bizkaia pueden continuar con normalidad el devenir de los mismos, ya que si hubiera que comunicar cualquier cuestión que los modifiquen lo haremos en el momento oportuno.

Por el momento, las sentencias no son firmes y serán recurridas.

10 de enero de 2025

**DIRECCIÓN GENERAL DE RÉGIMEN JURÍDICO Y  
FUNCIÓN PÚBLICA**